

Bi bezero mota ditugu, batetik gimnasioaren erabiltzaileak, hauek guk behar dugun energia lortzen lagunduko digute. Beraien egunerokotasunean egiten duten kirola eginez, elektrizitatea sortuko baitute. Bestetik, energia hori erosi eta kontsumituko duten bezeroak ditugu. Ideia berri bat denez, hasieran elektrizitatea erosiko duten bezero gutxi izango ditugula pentsatzen dugu, naturarekiko konpromisoa dutenak soilik. Baina enpresa sendotzen dugun heinean, esaterako iragarkiak egitean bezero gehiago lortuko ditugu. Normalean hauek finkoak izango dira, eta mota guztietakoak, famili handietatik, banakoetaraino.